k) Realizar los actos de administración y disposición, y las operaciones económicas y financieras que resulten necesarias dentro de sus fines.
l) Elaborar anualmente la memoria de ejecución de las actuaciones en materia de cooperación y solidaridad realizadas por el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi de acuerdo con la información remitida por este.
m) Remitir al Parlamento Vasco, previa solicitud de este, la planificación plurianual en materia de cooperación y solidaridad prevista en el apartado c) del presente artículo, así como la memoria anual que refiere el apartado l) del mismo.
n) Evaluar la implementación de la planificación plurianual en materia de cooperación y solidaridad del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
o) Asistir al sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a fin de que sus políticas sectoriales sean coherentes con los objetivos de la política pública vasca de cooperación y solidaridad.
p) Asesorar a Lehendakaritza en su labor de impulsar la coherencia de políticas para el desarrollo sostenible.
q) Asesorar, recomendar o emitir informes, a solicitud del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, respecto a las incidencias que sus planes y actuaciones pueden tener en los países y territorios del Sur.
r) Colaborar en órganos colegiados o interdepartamentales cuando estos consideren que el conocimiento de las realidades de los países y territorios del Sur es relevante para el diseño, ejecución y evaluación de las políticas del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
s) Asesorar a otras administraciones y entidades del sector público vasco en la

ematea, beren jarduera-eremuan egiten dituzten lankidetza- eta elkartasun-ekimenak kudeatu eta gauzatzeko.
t) Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluko eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakundearteko Batzordeko idazkaritza-lanak egitea.
u) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkioten gainerakoak.

Egoitza soziala eta fiskala Gasteizko Gaztelako Atea kaleko 15. zenbakian dago, eLankidetzari esleitutako eraikin eta lursailean, % 69,22ko ehunekoan.

gestión y ejecución de iniciativas de cooperación y solidaridad que realicen dentro de su ámbito de actuación.
t) Ejercer la secretaría del Consejo Vasco de Cooperación y Solidaridad y de la Comisión Interinstitucional de Cooperación y Solidaridad.
u) Las demás que le atribuyan las disposiciones vigentes.

El domicilio social y fiscal se encuentra en la calle Portal de Castilla nº 15 en Vitoria-Gasteiz, edificio y terreno adscritos en un porcentaje de 69,22% a eLankidetza.

Erakundearen jardueraren finantzaketa

Erakundea, bere izaera dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren mende dago erabat bere jardueraren garapena eta jarraitutasuna ziurtatzeko. Ildo horretan, Erakundea bereziki ustiapenerako diru-laguntzen bidez finantzatzen da, garapenerako lankidetzaren eremuan jarduteko programen eta programa horiek kudeatzeko beharrezkoa den egituraren kostua ordaintzeko zenbatekoa jasotzen du.

Euskal Autonomia Erkidegotik jasotako diru-laguntza horiek aurreko jarduerak finantzatzeko transferentziak dira, eta galdu-irabazien kontuari egozten zaizkio zuzenean, zerrendatutako gastuak ekitaldian bertan sortzen baitira.

Urteko ekitaldi bakoitzerako aurrekontuaren eta benetan egikaritutakoaren artean desorekak badaude, kontabilitate-galerak sor daitezke, eta, arestian deskribatutako erabateko finantzaketaren eskema kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzaren

Financiación de la actividad del Ente

El Ente presenta, dada su naturaleza, una dependencia plena de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el desarrollo y continuidad de su actividad, en este sentido el Ente se financia principalmente a través de subvenciones a la explotación por un importe tal que cubra el coste de los diferentes programas de actuación en el ámbito de la cooperación para el desarrollo, así como el de la estructura necesaria para la gestión de los mismos.

Dichas subvenciones recibidas de la Comunidad Autónoma de Euskadi son transferencias para financiar las actividades anteriores y se imputan directamente a la cuenta de pérdidas y ganancias, en tanto en cuanto los gastos relacionados se incurren en el propio ejercicio.

En el caso de que se produjeran desviaciones entre el presupuesto para cada ejercicio anual y lo realmente ejecutado, podrían surgir pérdidas contables, que dado el esquema de financiación plena descrita anteriormente, habrán de ser

etorkizuneko ekarpenen bidez konpentsatu beharko dira.

Azkenik, Gizarte Funtsaren bidez finantzatutako aktiboen amortizazioak ez dira finantzatzen Eusko Jaurlaritzaren transferentziekin.

## 2. Aurkezpen-oinarriak

### 2.1 Erakundeari aplikatu beharreko finantza informazioaren arau-esparrua

Administratzaileek urteko kontu hauek formulatu dituzte erakundeari aplikagarri zaion finantzainformazioaren arau-esparruarekin bat etorriz. Honako hauetan ezarritakóa da hori:

- Merkataritzako Kodea eta merkataritza-arloko gainerako legeria.
- Kontabilitate Plan Orokorra, 1514/2007 Errege Dekretuak eta haren ondorengo aldaketak, Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua barne, eta haren egokitzapen sektorialak.
- Kontabilitate Plan Orokorraren eta haren arau osagarrien garapenean Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Institutuak onartutako eta nahitaez bete beharreko arauak.
- Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate araudian.

### 2.2 Irudi leiala

Erakundearen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira urteko kontuak, eta aplikatu beharreko finantza-informazioari buruzko arau-

compensadas con futuras aportaciones del Gobierno Vasco.

Por último, las amortizaciones de los activos financiados mediante Fondo Social no son financiados con transferencias del Gobierno Vasco.

## 2. Bases de presentación

### 2.1 Marco normativo de información financiera aplicable al Ente

Estas cuentas anuales se han formulado por los Administradores y las Administradoras de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable al Ente, que es el establecido en:

- Código de Comercio y la restante legislación mercantil.
- Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007 y sus posteriores modificaciones incluyendo el Real Decreto 1/2021, de 12 de enero, por el que se modifican el Plan General de Contabilidad y sus Adaptaciones sectoriales.
- Las normas de obligado cumplimiento aprobadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas en el desarrollo del Plan General de Contabilidad y sus normas complementarias.
- El resto de la normativa contable española que resulte de aplicación.

### 2.2 Imagen fiel

Las cuentas anuales han sido obtenidas de los registros contables del Ente y se presentan de acuerdo con el marco normativo de información financiera que

esparruarekin bat etorriz, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideekin bat etorriz aurkezten dira. Horrenbestez, dagokion ekitaldian izandako Erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta eskudiru-fluxuen irudi fidela erakusten dute.

### 2.3 Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak

Urteko kontuak prestatzeko, etorkizunari begira egin beharreko zenbatespen eta judizio jakin batzuk erabili behar ditu Erakundeak. Zenbatespen eta judizio horiek etengabe ebaluatzen dira, eta hainbat faktoretan oinarrituta daude, etorkizuneko gertaeren inguruan inguruabarren arabera zentzuzkoak diruditen aurreikuspenak barnean hartuta. Funtsean, honako hauei buruzkoak dira zenbatespen horiek:

- Emandako diru-laguntzen gastuaren erregistroa, onuradunen egikaritze-mugarrien arabera.
- Aktibo materialen eta ukiezinen bizitza baliagarria.

Zenbatespenak 2024 eta 2023ko ekitaldien amaieran eskuragarri zegoen informaziorik onenean oinarrituta egin badira ere, definizioz nekez izango dira emaitza errealen berdin-berdinak, eta baliteke beste gertaera batzuen ondorioz hurrengo ekitaldietan zenbatespenak aldatu behar izatea. Aldatzekotan, nolanahi ere, era prospektiboan aldatuko lirateke.

### 2.4 Informazioaren konparazioa

Merkataritza-legeriari jarraikiz, administratzaileek, konparazio-ondorioetarako, 2024ko ekitaldiko zifrez gain aurreko ekitaldikoak aurkeztu dituzte egoera-balantzearen, galdu-

resulta de aplicación, y en particular, los principios y criterios contables en él contenidos, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera, de los resultados del Ente y de los flujos de efectivo habidos durante el correspondiente ejercicio.

### 2.3 Aspectos relevantes de la valoración y estimación de la incertidumbre.

La preparación de las cuentas anuales exige el uso por parte del Ente de ciertas estimaciones y juicios en relación con el futuro que se evalúan continuamente y se basan en distintos factores, incluidas las expectativas de sucesos futuros que se creen razonables bajo las circunstancias en torno a futuros acontecimientos. Básicamente estas estimaciones se refieren a:

- Registro del gasto de las subvenciones concedidas de acuerdo con los hitos de ejecución de los beneficiarios/beneficiarias.
- La vida útil de los activos materiales e intangibles

A pesar de que las estimaciones se han realizado sobre la mejor información disponible al cierre de los ejercicios 2024 y 2023, por definición, raramente igualarán a los correspondientes resultados reales, por lo que es posible que otros acontecimientos obliguen a modificarlas en los próximos ejercicios, lo que se realizaría en su caso, de forma prospectiva.

### 2.4 Comparación de información

De acuerdo con la legislación mercantil, los Administradores y las Administradoras presentan, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del Balance de Situación, de la

irabazien kontuaren, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren eta diru-fluxuen egoera-orriaren partida bakoitzarekin.

### 2.5 Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Horrez gain, administratzaileek, urteko kontu hauek egitean, kontuan hartu dituzte nahitaez aplikatu beharreko kontabilitateko printzipio eta arauak. Printzipio eta arau horiek eragin garrantzitsua dute urteko kontuetan. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

### 3. Emaitzaren aplikazioa

Erakundeak 2023 eta 2024ko ekitaldian galerak izan ditu atxikitako eraikinaren amortizazioagatik (funts sozialarekin finantzatzen da).

Kontseilu Errektoreak proposatu du aurreko ekitaldietako emaitza negatiboetara pasatzea.

### 4. Erregistro- eta balioespen-arauak

Erakundeak urteko kontu hauek lantzeko erabilitako kontabilitate-irizpide nagusiak honako hauek dira:

### 4.1 Ibilgetu ukiezina

Oro har, ibilgetu ukiezina eskuratze-prezioan edo produkzio-kostuan balioesten da hasiera batean. Ondoren, kostu-balioaren arabera balioesten da, bizitza erabilgarriaren arabera kalkulatutako amortizazio metatua eta,

Cuenta de Pérdidas y Ganancias, del Estado de Cambios en el Patrimonio Neto y del Estado de Flujos de Efectivo, además de las cifras del ejercicio 2024 las correspondientes al ejercicio anterior.

### 2.5 Principios contables no obligatorios aplicados

No se han aplicado principios contables no obligatorios. Adicionalmente, los Administradores y las Administradoras han formulado estas cuentas anuales teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales. No existe ningún principio contable que siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

### 3. Aplicación del resultado

El Ente ha tenido pérdidas durante los ejercicios 2023 y 2024 debido a la amortización del edificio adscrito, el cual se financia con fondo social.

El Consejo Rector propone traspasarlo a resultados negativos de ejercicios anteriores.

### 4. Normas de registro y valoración

Los principales criterios contables utilizados por el Ente en la elaboración de estas cuentas anuales son los siguientes:

### 4.1 Inmovilizado intangible

Como norma general, el inmovilizado intangible se valora inicialmente por su precio de adquisición o coste de producción. Posteriormente, se valora a su valor de coste minorado por la correspondiente amortización acumulada,

hala badagokio, narriaduragatiko balioespen-zuzenketetan metatutako zenbatekoa kenduta.

calculada en función de su vida útil y, en su caso, por el importe acumulado de las correcciones valorativas por deterioro reconocidas.

Ibilgetu ukiezinak bizitza erabilgarri jakineko aktiboak dira, eta, beraz, amortizatu egin behar dira.

Los inmovilizados intangibles son activos de vida útil definida y, por lo tanto, son objeto de amortización.

*Aplikazio informatikoak*

Programa informatikoak erosi eta garatzearen kostuak programa horiek eskuratzeko edo erabilera-eskubidea lortzeko ordaindutako zenbatekoen arabera balioesten dira, betiere hainbat ekitalditan erabiliko direla aurreikusten bada. Kostu horiek, gainera, metatutako amortizazioa (metodo linealaren arabera eta bost urteko bizitza erabilgarriko aldi baterako kalkulatua) eta, hala badagokio, narriaduragatiko balioespen-zuzenketak kenduta aurkeztu dira.

Aplikazio informatiko horien mantentze-gastuak sortzen diren ekitaldiko gastu gisa egozten dira zuzenean.

*Aktibo ukiezinen balio-narriadura*

Ekitaldi bakoitzaren amaieran edota ibilgetuaren elementu baten balio-galeraren zantzuak daudenean, Erakundeak aktibo horien balio berreskuragarria liburuetan duten balioarena baino zenbateko txikiago batera murrizten duten balio-galerak ote dauden kalkulatuko du "narriadura-test" izenekoaren bidez.

*Aplicaciones informáticas*

Los costes incurridos en la adquisición y desarrollo de programas informáticos se valoran por los importes satisfechos para su adquisición o para el derecho al uso de los mismos, siempre y cuando se prevea que su utilización abarcará varios ejercicios, y se presentan netos de su correspondiente amortización acumulada, calculada según el método lineal sobre un período de cinco años y, en su caso, de las correcciones valorativas por deterioro reconocidas.

Los gastos de mantenimiento de estas aplicaciones informáticas se imputan directamente como gastos del ejercicio en que se producen.

*Deterioro de valor de activos intangibles*

Al cierre de cada ejercicio o siempre que existan indicios de pérdida de valor de un elemento del inmovilizado, el Ente procederá a estimar mediante el denominado "Test de deterioro" la posible existencia de pérdidas de valor que reduzcan el valor recuperable de dichos activos a un importe inferior al de su valor en libros.

## 4.2 Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala atxikipenari esleitutako balioan edo eskuratze-prezioan edo produkzio-kostuan baloratuta dago.

## 4.2 Inmovilizado material

El inmovilizado material se halla valorado al valor asignado a la adscripción o a precio de adquisición o coste de producción.

*Aktiboaren atxikipena*

2019ko urtarrilaren 21ean Ondare eta Kontratazioko zuzendariak 6/2019 ebatzitakoaren arabera, eLankidetzari Vitoria-Gasteizeko Gaztela Ateko 15 zenbakiko eraikinaren hainbat eremu atxiki zaizkio. Han Erakundearen egoitza berria kokatu da. Aktiboaren atxikipen horrek, eLankidetzaren gizarte-funtsean, 1.767.545 euroko ordaina izan zuen.

Atxikipen horren arrazoizko balioa eraikina eta lursailaren tasazio baten arabera zehaztu zen. Bertan, eraikinaren bizitza erabilgarria 50 urtekoa dela kalkulatu da. 2020ko urrian Erakundea bulego horietara lekualdatu zen.

Aktiboa atxikitzeari dagokionez, jasotako ondasunen hartuta, jarduera-adar baten parekoa, Erakundeak ibilgetu materialaren epigrafe eta lursailak eta eraikinak kontuan erregistratu zuen jasotako ondasuna, beren izaeraren arabera.

*Amortizazioak*

Enteak metodo linealari jarraituta, amortizatzen du ibilgetu materiala, dena delako ondasunaren bizitza baliagarriko urteen arabera kalkulaturiko urteko amortizazio-ehunekoak aplikatuz, honako xehetasun honen arabera:

*Adscripción del activo*

Con fecha 21 de enero de 2019 el Director de Patrimonio y Contratación dicta la resolución 6/2019 por la que se adscribe a eLankidetza determinados espacios del edificio ubicado en calle Portal de Castilla 15 de Vitoria-Gasteiz donde radica la nueva sede del Ente. Esta adscripción de activo tuvo su contrapartida en el Fondo Social de eLankidetza por importe de 1.767.545 euros.

El valor razonable de dicha adscripción se determinó de acuerdo con una tasación realizada del edificio y del terreno. En base a la misma, se ha estimado una vida útil del edificio de 50 años. En octubre de 2020 el Ente se trasladó a dichas oficinas.

En lo relativo a la adscripción de activo, el Ente procedió a registrar el bien recibido en el epígrafe de inmovilizado material en la cuenta de terrenos y construcciones en función de su naturaleza.

*Amortizaciones*

La Entidad amortiza el inmovilizado material siguiendo el método lineal, aplicando porcentajes de amortización anual calculados en función de los años de vida útil estimada de los respectivos bienes, según el siguiente detalle:

| | Kalkulatutako Bizitza baliagarria<br>Años de Vida Útil Estimada |
|---|---|
| Eraikuntzak<br>Construcciones | 50 |
| Instalazio teknikoak<br>Instalaciones técnicas | 10 |
| Altzariak eta lanabesak<br>Mobiliario y enseres | 10 |

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuen kontserbazio eta mantentze gastuak egiten diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuan egozten dira. Aldiz, ondasun horien ahalmena edo

Los gastos de conservación y mantenimiento de los diferentes elementos que componen el inmovilizado material se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en el

eraginkortasuna handitzen edo bizitza baliagarria luzatzen laguntzeko hobekuntzetan inbertitzen diren zenbatekoak kostu handiagotzat erregistratzen dira.

*Aktibo materialen balio-narriadura*

Martxoaren 25eko EHA/733/2010 Aginduaren arabera (horren bidez, inguruabar jakin batzuetan jarduten duten enpresa publikoen kontabilitate-alderdiak onesten dira), entitatearen administratzaileek Erakundearen ibilgetua osatzen duten elementuak baloratu dituzte eta eskudiru-fluxurik sortzen ez duten aktibotzat jotzen dira, zeren eta merkataritza-etekina sortzeaz bestelako helburu bat baitute, hala nola aktibo horiek sortzen dituzten eta kolektibitatearen onerakoak diren fluxu ekonomiko eta sozialak, hau da, haien gizarte-onura edo zerbitzu-gaitasuna.

Agindu horren xedapenen arabera, Erakundeak gutxienez ekitaldi bakoitzaren amaieran ebaluatzen du haren ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balioa narriatu delako zantzurik, aktibo horien balio berreskuragarriaren kontabilitate-balioa baino zenbateko txikiago batera murrizten duenik, badagoen. Zantzurik egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria zenbatesten da, balio-narriaduragatik egon daitekeen galeraren irismena zehazteko asmoz. Ondorio horietarako, zenbateko berreskuragarria bere arrazoizko balioari salmenta-kostuak eta bere erabilera-balioa kenduta lortzen dena izango da. Ebidentzia hoberik ezean, balioa galdutako birjartze-kostuaren arabera zehaztuko da eskudirua sortzen ez duen aktibo baten edo ustiaketa- edo zerbitzu-unitate baten erabilera-balioa.

que se incurren. Por el contrario, los importes invertidos en mejoras, que contribuyen a aumentar la capacidad o eficiencia o a alargar la vida útil de dichos bienes, se registran como mayor coste de los mismos.

*Deterioro de valor de activos materiales*

De acuerdo con la Orden EHA/733/2010, de 25 de marzo, por la que se aprueban aspectos contables de empresas públicas que operan en determinadas circunstancias, los administradores y las Administradoras del Ente han evaluado los elementos que forman el inmovilizado del Ente y se clasifican como activos no generadores de flujos de efectivo, dado que se poseen con una finalidad distinta a la de generar un rendimiento comercial, como pueden ser los flujos económicos sociales que generan dichos activos y que benefician a la colectividad, es decir, su beneficio social o potencial de servicio.

De acuerdo con las disposiciones de dicha Orden, el Ente evalúa, al menos, al cierre de cada ejercicio si existen indicios de deterioro de valor de su inmovilizado, intangible y material, que reduzcan el valor recuperable de dichos activos a un importe inferior al de su valor en libros. Si existe cualquier indicio, se estima el valor recuperable del activo con el objeto de determinar el alcance de la eventual pérdida por deterioro de valor. A estos efectos se entiende por importe recuperable el mayor importe entre su valor razonable menos los costes de venta y su valor en uso. Salvo mejor evidencia, el valor en uso de un activo no generador de efectivo o unidad de explotación o servicio se determina por su referencia a su coste de reposición depreciado.

2024ko eta 2023ko ekitaldietan, erakundeak ez zuen ibilgetu ukiezinaren eta, materialaren narriaduragatiko galerarik erregistratu.

En los ejercicios 2024 y 2023, el Ente no ha registrado pérdidas por deterioro del inmovilizado intangible y material.

*Errentamenduak*

Errentamenduak finantza-errentamendu gisa sailkatzen dira, baldin eta errentamenduaren baldintzetatik ondorioztatzen bada, maizterrari transferitzen zaizkiola kontratuaren xede den aktiboaren jabeari berez dagozkion arriskuak eta mozkinak. Errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira gainerako errentamenduak.

*Arrendamientos*

Los arrendamientos se clasifican como arrendamientos financieros siempre que de las condiciones de los mismos se deduzca que se transfieren al arrendataio sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a la propiedad del activo objeto del contrato. Los demás arrendamientos se clasifican como arrendamientos operativos.

*Errentamendu operatiboa*

Errentamendu operatiboko akordioetatik datozen dirusarrerak eta gastuak galdu-irabazien kontuari egozten zaizkio, sortzen diren ekitaldian. Errentamendu operatibo bat kontratatzean egiten diren kobrantza edo ordainketa guztiak kobrantza edo ordainketa aurreratutzat hartuko dira, eta emaitzei egotziko zaizkie errentamendu-aldiaren barruan, errentan emandako aktiboaren mozkinak lagatzen edo jasotzen diren heinean.

*Arrendamiento operativo*

Los ingresos y gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se cargan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se devengan. Cualquier cobro o pago que pudiera realizarse al contratar un arrendamiento operativo, se tratará como un cobro o pago anticipado que se imputará a resultados a lo largo del periodo del arrendamiento, a medida que se cedan o reciban los beneficios del activo arrendado.

## 4.3 Finantza tresnak

*Finantza aktiboak*

eLankidetzak dituen finantza aktiboak kostu amortizatuko finantza aktiboak dira funtsean, ez dira ondare-tresnak, ezta deribatuak ere, eta haien kobrantzak zenbateko finkokoak edo determinagarriak dira. Aktibo korrienteetan barne hartzen dira, balantzearen dataz geroztik 12 hilabetetik gorako muga-egunak dituztenean salbu, orduan aktibo ez-korriente bezala sailkatzen baitira.

## 4.3 Instrumentos financieros

*Activos financieros*

Los activos financieros que posee eLankidetza son básicamente activos a coste amortizado, no son instrumentos de patrimonio ni derivados y cuyos cobros son de cuantía fija o determinable. Se incluyen en activos corrientes, excepto para vencimientos superiores a 12 meses desde la fecha del balance que se clasifican como activos no corrientes.

*Finantza pasiboak*

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak dira Erakundeak ordaindu behar dituen eta enpresaren trafiko-eragiketengatiko ondasun eta zerbitzuen erosketan sortu diren zorrak eta partidak, baita merkataritza-jatorririk izan gabe finantza-tresna deribatutzat hartu ezin direnak ere.

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak jasotako (eta zuzenean eslei daitezkeen transakzioaren kostuekin doitutako) kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira hasiera batean. Ondoren, pasibo horiek beren kostu amortizatuaren arabera balioesten dira. Aurrekoa kontuan izanik ere, gehienez ere urtebeteko muga-eguna duten eta hasiera batean balio nominalaren arabera balioesten diren zorrak zenbateko horren arabera balioesten dira oraindik, administratzaileen ustez fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez baita esanguratsua.

Erakundeak finantza-pasiboei baja ematen die haiek sortu dituzten obligazioak desagertzen direnean.

*Pasivos financieros*

Son pasivos financieros a coste amortizado aquellos débitos y partidas a pagar que tiene el Ente y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o también aquellos que, sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

Los pasivos financieros a coste amortizado se valoran inicialmente al valor razonable de la contraprestación recibida, ajustada por los costes de la transacción directamente atribuibles. Con posterioridad, dichos pasivos se valoran de acuerdo con su coste amortizado. No obstante, lo anterior, los débitos con vencimiento no superior a un año que se valoran inicialmente por su valor nominal continúan valorándose por dicho importe, ya que los Administradores y las Administradoras consideran que el efecto de no actualizar los flujos no es significativo.

El Ente da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

### 4.4 Aktiboak eta pasiboak

*Ordaindu beharreko zorrak eta partidak*

Emandako diru-laguntzen, Gizarte Segurantzaren erakundeekiko kreditu edo zorren edota zerga-aktibo eta zerga-pasibo korriente zein ez-korrienteen ondorioz Erakundeak dituen eskubide eta betebeharretatik sortu diren administrazio publikoekiko saldo zordun eta hartzekodunek kobratzeko eskubidea edo ordaintzeko betebeharra badakarte ere, ez dira kontratu-harreman baten ondorioz sortzen. Aitzitik, administrazio publikoen lege-eskakizun batean edo sustapen-jardueretan dute jatorria, eta, beraz, ez

### 4.4 Activos y Pasivos

*Débitos y partidas a pagar*

Los saldos deudores y acreedores con las Administraciones Públicas procedentes de derechos y obligaciones para el Ente derivados de subvenciones concedidas, créditos o débitos con Organismos de la Seguridad Social o activos y pasivos fiscales tanto corrientes como no corrientes, si bien suponen un derecho de cobro o una obligación de pago, no derivan una relación contractual, sino que tienen su origen en un requerimiento legal o en actividades de fomento por parte de las Administraciones Públicas, por lo que

dira finantza-aktibotzat edo finantza-pasibotzat hartzen.

*Diru laguntza bihur daitezkeen zorrak*

Eman diren baino jaso edo kobratu ez diren diru-laguntzak dira, eman ziren jarduerak, proiektuak edo ekintzak gauzatzeke egoteagatik ekitaldia bukatzen denean itzulezintzat jotzeko beharrezko betekizunak betetzen ez dituztenak.

no se consideran activos o pasivos financieros.

*Deudas transformables en subvenciones*

Se trata de subvenciones concedidas y cobradas, que a la fecha de cierre del ejercicio no cumplen los requisitos necesarios para ser consideradas no reintegrables, por estar pendiente la ejecución de las inversiones para las cuales se concedieron.

## 4.5 Zerga korrienteak eta geroratuak

eLankidetza, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa, den eta betetzen dituen helburuei eta bere araudiaren arabera egiten dituen eragiketei lotuta dagoen heinean, Arabako Batzar Nagusien abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren (Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren) 12. artikuluan kontuan hartutako salbuespen subjektiboaren eremuan txertatuta dago. Adierazitako Foru Arauaren 126. artikuluari jarraikiz, arestian deskribatutako subjektu pasiboak ez daude behartuta aitorpena aurkeztera.

## 4.5 Impuestos corrientes y diferidos

eLankidetza, como Ente Público de Derecho Privado, unida a los fines que cumple y operaciones, que conforme a su normativa realiza, se incluye dentro del ámbito de la exención subjetiva contemplada en el artículo 12 de la Norma Foral 37/2013, de 13 de diciembre, de las Juntas Generales de Álava, del Impuesto sobre Sociedades. De acuerdo con el artículo 126 de la citada Norma Foral, los sujetos pasivos descritos anteriormente no están obligados a presentar declaración alguna.

## 4.6 Lotutako aldeen arteko transakzioak

Oro har, lotutako erakundeen arteko eragiketak beren arrazoizko balioaren arabera kontabilizatzen dira hasiera batean. Kasuan kasu, adostutako balioa eta arrazoizko balioa berdinak ez badira, eragiketaren errealitate ekonomikoa kontuan izanda erregistratzen da aldea.

Ondorengo balioespena dagozkion arauetan aurreikusitakoaren arabera egiten da.

## 4.6 Transacciones entre partes vinculadas

Con carácter general, las operaciones entre entidades vinculadas se contabilizan en el momento inicial por su valor razonable. En su caso, si el precio acordado difiere de su valor razonable, la diferencia se registra atendiendo a la realidad económica de la operación.

La valoración posterior se realiza conforme con lo previsto en las correspondientes normas.

## 4.7 Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Epigrafe honetan sartzen dira kutxako, eta likidezia handiko beste inbertsio batzuk eta baldintza hauek guztiak betetzen dituzten aktiboen aldi baterako eskurapenak:

- Eskudiru bihurtu daitezke.
- Eskuratzeko unean hiru hiletik gorakoa ez zen epemuga zuten.
- Ez daude balio-aldaketak izateko arrisku nabarmenaren pean.
- Erakundeko diruzaintzako kudeaketa-politika arruntaren parte dira.

## 4.7 Efectivo y otros activos líquidos equivalentes

Este epígrafe incluye el efectivo en caja y otras inversiones de alta liquidez y adquisiciones temporales de activos que cumplen con todos los siguientes requisitos:

- Son convertibles en efectivo.
- En el momento de su adquisición su vencimiento no era superior a tres meses.
- No están sujetos a un riesgo significativo de cambio de valor.
- Forman parte de la política de gestión normal de tesorería del Ente.

## 4.8 Fondo soziala

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legeari jarraikiz, gizarte-funts baten aurrekontua egin zen (30.000 eurokoa), eta 2013ko ekitaldian ordaindu eta erregistratu zuen Erakundeak.

2019ko urtarrilaren 21ean Ondare eta Kontratazioko zuzendariak 6/2019 ebatzitakoaren arabera, eLankidetzari atxikitzen baitzaizkio erakundearen egoitza berria kokatuko den Gaztelako Atea kaleko 15. zenbakian (Vitoria-Gasteiz) dagoen eraikineko gune jakin batzuk, eta funts soziala 1.767.545 eurotan gehitzen baita.

## 4.8 Fondo Social

De acuerdo con la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se presupuestó un fondo social por importe de 30.000 euros, que fue desembolsado y registrado por el Ente durante el ejercicio 2013.

Con fecha 21 de enero de 2019 el Director de Patrimonio y Contratación dicta la resolución 6/2019 por la que se adscribe a eLankidetza determinados espacios del edificio y terreno ubicado en calle Portal de Castilla 15 de Vitoria-Gasteiz donde radicará la nueva sede del Ente, incrementando el fondo social en 1.767.545 euros.

## 4.9 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzulgarriak diren diru-laguntzak pasibo gisa erregistratzen dira, eta beste pasibo finantzario batzuk, itzuli beharrik gabekotzat hartzeko baldintzak bete arte,

## 4.9 Subvenciones donaciones y legados

Las subvenciones que tengan carácter de reintegrables se registran como pasivos en el epígrafe deudas a corto plazo y otros pasivos financieros hasta cumplir las

eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, berriz, ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa erregistratzen dira eta diru-sarrera gisa jasotzen dira oinarri sistematiko eta arrazional baten gainean, diru- laguntzaren ondoriozko gastuekin erlazionatuta. Bazkideetatik jasotako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak fondo propioetan erregistratzen dira zuzenean. Horretarako, diru-laguntza bat itzuli beharrik gabekotzat hartzen da diru-laguntza emateko erabaki indibidualizatua dagoenean, hori emateko ezarritako baldintzak bete direnean eta kobratuko dela zalantzan jartzeko arrazoirik ez dagoenean.

condiciones para considerarse no reintegrables, mientras que las subvenciones no reintegrables se registran como ingresos directamente imputados al patrimonio neto y se reconocen como ingresos sobre una base sistemática y racional de forma correlacionada con los gastos derivados de la subvención. Las subvenciones no reintegrables recibidas de los socios se registran directamente en fondos propios. A estos efectos, una subvención se considera no reintegrable cuando existe un acuerdo individualizado de concesión de la subvención, se han cumplido todas las condiciones establecidas para su concesión y no existen dudas razonables de que se cobrará.

Kapital-transferentziak jasotzen hastean, Erakundeak aktibo gisa jasotako ondasunak edo zerbitzuak erregistratzen ditu alde batetik, eta ondare garbian izandako gehikuntza bestetik. Kapital diru-laguntzak, erregistratzen diren egunetik aurrera, haien bidez finantzatutako aktiboek dagokion aldian jasandako balio-galeraren proportzioan egozten zaizkie emaitzei.

En las subvenciones de capital, en el reconocimiento inicial el Ente registra, por un lado, los bienes o servicios recibidos como un activo y, por otro, el correspondiente incremento en el patrimonio neto. A partir de la fecha de su registro, las subvenciones de capital se imputan a resultados en proporción a la depreciación experimentada durante el período, por los activos financiados con las mismas.

Moneta-izaerako diru-laguntzak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, eta moneta-izaera ez dutenak, aldiz, jasotako ondasunaren arrazoizko balioaren arabera (bi balio horiek jaso diren uneari lotuta daude).

Las subvenciones de carácter monetario se valoran por el valor razonable del importe concedido y las subvenciones no monetarias por el valor razonable del bien recibido, referidos ambos valores al momento de su reconocimiento.

Sortu ez diren gastu espezifikoei lotutako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak pasiboan jasotzen dira dagozkion gastuak sortzen diren arte (une horretan jasotzen dira galdu-irabazien kontuan), baita ematen diren ekitaldian ustiapen-defizita konpentsatzeko ematen direnak ere, ondorengo ekitaldietako ustiapen-defizita konpentsatzera bideratzen direnean salbu, kasu horretan ekitaldi horietan egozten baitira.

Las subvenciones no reintegrables relacionadas con gastos específicos que no se han devengado, se recogen en el pasivo, hasta que se devengan los correspondientes gastos, momento en el que se reconocerán en la cuenta de pérdidas y ganancias, y las concedidas para compensar déficit de explotación en el ejercicio en que se conceden, salvo cuando se destinan a compensar déficit de

explotación de ejercicios futuros, en cuyo caso se imputan en dichos ejercicios.

### 4.9.1 Kudeaketa korrienteko beste gastu batzuk: Diru-laguntzak ematea

Galdu-irabazien kontuaren epigrafe honetan, eLankidetzak garapenerako lankidetzari eta elkartasunari lotutako helburuak dituzten erakundeei emandako ustiapen diru-laguntzak sartzen dira: elkarteei, fundazioei, unibertsitateei eta abar. Deialdiak eLankidetzaren zuzendariak edo, eLankidetza atxikita dagoen saileko dagokion arduradunak, onartzen ditu, kasuan kasu, eLankidetzaren Kontseilu Errektorea jakinaren gainean jarri ondoren, dekretuetan aurreikusita dagoen eta lankidetza-tresna bakoitzaren oinarri den erregimen juridikoa eta egitura-arau aplikagarrietan ezarritako eskumen-banaketa aplikatuta. Diru-laguntzak eLankidetzaren Zuzendaritzak esleitzen ditu. Deialdia eta esleipena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ematen dira argitara. Halaber, lehendik aipatutako izaerako erakundeei diru-laguntza izendunak eta zuzeneko diru-laguntzak ere ematen zaizkie, eta hitzarmenen bitartez gauza daitezke.

Kasu gehienetan, laguntzak hainbat urtetan ordaintzen dira, eta, lankidetza-tresnarik esanguratsuenaren (hots, lankidetza-proiektuen) kasuan, ehuneko baten ordainketa ezartzen da, zenbatetsitako egikaritze-mugarrien arabera. 2013. urtean, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez egindako arau-aldaketa baten ondorioz, proiektuetarako laguntzetarako deialdi honetan emandako diru-laguntzak honela ordaintzen dira: a) lehen ordainketa (emandako laguntzaren

### 4.9.1 Gastos de gestión corriente: Concesión de Subvenciones

En este epígrafe de la cuenta de pérdidas y ganancias se incluyen las subvenciones de explotación concedidas por el Ente a entidades cuyos fines se relacionan con la cooperación y la solidaridad: Asociaciones, Fundaciones, Universidades, etc. Las convocatorias son aprobadas por el Director de eLankidetza, o por el o la responsable del Departamento al que esté adscrito eLankidetza, según proceda, informado el Consejo Rector de eLankidetza, en aplicación del régimen jurídico previsto en los decretos que sustenta cada uno de los instrumentos de cooperación y del reparto de competencias establecido en las normas de estructura aplicables. La adjudicación de las subvenciones se lleva a cabo por la Dirección de eLankidetza. Tanto la convocatoria como la adjudicación se hacen públicas en el Boletín Oficial del País Vasco. Asimismo, se conceden subvenciones nominativas y subvenciones directas a entidades de la naturaleza antes expresada, que pueden ser articuladas a través de convenios.

El abono de las ayudas se realiza, en la mayor parte de los casos, de forma plurianual estableciéndose, en el caso del instrumento de cooperación más significativo –el de proyectos de cooperación- el pago de un porcentaje en función de los hitos de ejecución estimados. Como consecuencia de una modificación normativa efectuada en 2013, por el Decreto 390/2013, de 23 de julio, de modificación del Decreto por el que se regulan las ayudas a proyectos con cargo al Fondo de Cooperación al Desarrollo, los abonos en las subvenciones concedidas en esta

% 25), esleipenaren unean; b) bigarren ordainketa (emandako laguntzaren% 40), proiektuaren egikaritzeari buruz egin behar den eta dagoeneko emanda dagoen laguntzaren gutxienez % 80 justifikatuko duen txosten dokumentalaren ondoren; eta c) hirugarren ordainketa (emandako laguntzaren % 35), proiektuaren egikaritzeari buruz egin behar den eta dagoeneko emanda dagoen diru-laguntzaren gutxienez % 80 justifikatuko duen txosten dokumentalaren ondoren.

convocatoria de ayudas a proyectos se efectúan de la siguiente manera: a) un primer pago de un 25% de la ayuda concedida, en el momento de la adjudicación; b) un segundo pago del 40% del total de la ayuda concedida, previo informe documental de la ejecución del proyecto en el que se alcance la justificación de, al menos, el 80% de la subvención ya desembolsada y c) un tercer pago del 35% del total de la ayuda concedida, previo informe documental, asimismo, de la ejecución del proyecto en el que se alcance la justificación de, al menos, el 80% de la subvención ya desembolsada.

Lankidetza-tresnen egikaritzea askotariko aldagaien araberakoa da, hala nola, aldagai politiko-sozialen, antolamendu-aldagaien eta egitura-aldagaien araberakoa, eta aldagai horiek, une jakin batean, betetzearen justifikazioari eta, beraz, une bakoitzean dagokion diru-laguntzaren zatiaren ordainketari dagokienez hasiera batean aurreikusitako epeak betetzeko ezintasuna eragin dezakete. Administrazioak kontuan hartu du errealitate hori, eta, arau erregulatzaileen eta deialdien bitartez, proiektuak egikaritzeko epeetan luzapenak eskatzeko eta onartzeko aukera ematen du zenbait kasutan. Hori dela-eta, esan daiteke lankidetza-tresnak hainbat urtetan egikaritzeko aukerak (laguntza-modalitate guztien funtsezko ezaugarri izan denak) ez dakarrela, berez eta denbora-eremu zabal baten barruan ere, egikaritzearen sortzapena automatikoki ezartzea. Luzapenak onartzen badira, ordaintzeko betebeharrak sortzen diren unea denboran luzatu behar da ezinbestez.

La ejecución de los instrumentos de cooperación está sometida a variables de todo tipo: como políticas-sociales, organizativas, estructurales... que, en un momento determinado, pueden implicar la imposibilidad de que se cumplan los plazos inicialmente previstos en lo que se refiere a la justificación de su cumplimiento y, por ende, al abono de la parte de subvención que, en cada momento, corresponda. Esta realidad ha sido considerada por la Administración que, a través de las normas reguladoras y las distintas convocatorias, permite, en algunos supuestos, la solicitud y aprobación de prórrogas en los plazos de ejecución de los proyectos. Por ello puede afirmarse que la plurianualidad en la ejecución de los distintos instrumentos de cooperación, característica esencial de las distintas modalidades de ayudas, no supone, por sí misma y aún dentro de un amplio ámbito temporal, que el devengo de la ejecución pueda determinarse de manera automática. Si las prórrogas se aprueban, se impone, necesariamente, una dilación en el tiempo de ese momento en el que nacen las obligaciones de pago.

Aurrekoan, Erakundearen izaera publikoan eta lankidetza-jardueraren sustatzaile gisa egiten duen jardunaren

En base a lo anterior, al carácter público del Ente y a la naturaleza de su actuación como promotor de la actividad de

izaeran oinarrituta, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak onartutako abenduaren 30eko 9/2013 Zirkularra aplikatzen du Erakundeak. Zirkular horri jarraikiz, emandako diru-laguntzei dagokien sortzapena zenbatetsi du berriz, eta erakunde onuradunen egikaritzearen errealitatera hurbildu du, hasiera batean aurreikusitako egikaritze-ehunekoetan oinarrituta kalkulatu ordez.

Zirkular horretan oinarrituta, diru-laguntzak emakida onartzen den ekitaldian kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan, betiere diruz lagundutako jarduera oso-osorik ekitaldi horretan egin dela ziur jakiten bada (eta hori ordainketaren galdagarritasunak ezar dezake, bestelako nabaritasunik ezean).

Halaber, eta hainbat urtetako diru-laguntzak ematen diren kasuan (diruz lagundutako jardueraren ziklo normalak hainbat ekitaldi hartzen dituela kontuan hartuta, eta konturako ordainketak edo ordainketa aurreratuak egiteko aukerarekin, arestian adierazi dugunez), jardueraren egikaritze-mugarriak hartzen dira kontuan, eta horiek ezarriko dute sortzapena eta dagokion gastua erregistratzeko unea.

### 4.9.2 Ustiapeneko bestelako diru-sarrerak: Jasotako diru-laguntzen ondoriozko diru-sarrerak

Memoriaren 1. oharrean adierazten denez, Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baliabideak jasotzen ditu garapenerako lankidetzari lotutako helburuak dituzten askotariko erakundeei (batez ere elkarte, fundazio, aurrekoen federazio, unibertsitate eta abarri) diru-laguntzak emateko, eta diru-laguntza horietako batzuk hainbat urtetakoak dira.

cooperación, el Ente aplica la Circular 9/2013, de 30 de diciembre, aprobada por la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco, por la cual reestima el devengo correspondiente a las subvenciones concedidas, aproximándolo a la realidad de ejecución de las entidades beneficiarias, en lugar de realizarlo en base a los porcentajes de ejecución inicialmente previstos.

En base a dicha circular, las subvenciones se contabilizan en la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en el que se apruebe su concesión, siempre y cuando se tenga la certeza de que la actividad subvencionada se ha realizado íntegramente en el mismo, lo cual puede venir determinado, salvo mejor evidencia, por la exigibilidad del pago.

Asimismo, y en el caso de concesión de subvenciones de carácter plurianual, en las que el ciclo normal de actividad subvencional abarca varios ejercicios, pudiéndose realizar abonos a cuenta o pagos anticipados, tal y como se ha mencionado anteriormente, se estiman hitos de ejecución de dicha actividad que determinará el devengo y el momento de registrar el gasto correspondiente.

### 4.9.2 Otros ingresos de explotación: Ingresos por Subvenciones recibidas

Tal y como se menciona en la nota 1 de la memoria, el Ente recibe recursos de la Administración General del País Vasco con objeto de conceder subvenciones, algunas de carácter plurianual, a entidades de diversa naturaleza, básicamente asociaciones, fundaciones, federaciones de las anteriores, universidades, etc cuyos objetivos tienen relación con la cooperación para el desarrollo.

Baliabide horiek, nolanahi ere, Erakundeak ekitaldi bakoitzean konprometitzen dituen diru-laguntzen ondoriozko betebeharrei aurre egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aurrekontuan sartutako zenbatekoari dagozkio. Diru-laguntza horiek Erakundeak konprometituta dituen diru-laguntzak ordaintzen dituen heinean kobratzen dira (4.9.1 oharra).

Estos recursos corresponden al importe presupuestado por la Administración General del País Vasco con objeto de hacer frente a las obligaciones por subvenciones que el Ente comprometa en cada ejercicio. El cobro de las mismas se produce a medida que el Ente satisface a su vez las subvenciones comprometidas (nota 4.9.1).

Erakundeak, halaber, garapenari eta lankidetzari lotutako interes publiko edo orokorreko jarduera garatzeko jarduera eta gastu espezifikoak finantzatzeko transferentziak jasotzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik, galdu-irabazien kontuari egozten zaizkio adierazitako gastuak egiten diren unean. Ordura arte, epe laburreko aldizkapenen kontuan erregistratzen dira.

Asimismo, el Ente recibe transferencias de la Administración General del País Vasco para financiar actividades y gastos específicos en el desarrollo de su actividad de interés público o general asociada al desarrollo y cooperación, se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el momento en el que se incurren en los gastos relacionados, registrándose hasta ese momento en la cuenta de periodificaciones a corto plazo.

